

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko uztailak 18 • 1363 zenbakia

MENDIAREN GOZAMENA GALDU BARIK



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta irritai
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com



osasun gida

Dentistak

Odontologia Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
ARAT KLINIKAK - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20000 Eibar
943 201 833
www.aratclinika.com



@arat_klinika

EIBAR - HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizenziatua
S.T.S. 1016

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 684 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
HORTZ KLINIKAK - CLINICA DENTAL

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berretuak zu hobeto zainduko.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 18 Tel. 943 700 582 info@bistaeder.es

Atxegileak: 0101 - 10001010

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 99 - 1. erd. Eibar
943 20 72 17 - 680 43 28 08
amaia.esnaola@odontologia.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PACI
Ortodontzia / Inplanteak / laser teknologia

IRAZABAL
clinica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Ttxoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOAK

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

BS Hortz Klinika
Jose Usen Rodriguez
Montero OOKTORAK

LARRIALDIAK
ERIE LANTZEN DITUZU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA SL 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clinica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutas

ANE MENDIA
101 Lekeola 101a

- FISIOTERAPIA
- KORTU, LERROIAK
- Puntzioa eta TERAPIA
- K. HERRAK + HERRERAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
T.F.: 943 53 08 42
ane.mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martinez **Dr. Alejandro Recas**

**CINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Quintanar de la Sierra (Burgos) herrian jokatu den Munduko Orientazio Txapelketan lehiatu ziren Jon Galarraga eta Oskar Gisasola eibartarra. Gipuzkoako Orientazio Taldeko bikoteak lan bikaina egin zuen eta 2. postuan amaitu zuen 'super beteranoen' mailan.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Oskar Gisasola

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Okerrak zuzentzen

Aurreko asteko alean Aiert Zubigarai “3izkai” komikigileari egindako elkarrizketan pare bat akats izan genituen. Bere ezizen zuzena “3izkai” da, eta ez “Bizkai” ipini genuen bezala. Bestalde, Elorrioko bigarren proiektuari buruz “1.500 ale atera beharko ditugu bakoitzetik” bagenioen ere, bakoitzetik izan beharrean kopuru hori guztira kaleratuko direnei dagokie; hau da, 750 izango dira bakoitzetik.

Erredakzioa

Ikasturteko azken alea

Eskuartearen duzuen ale hau ikasturteko azkena izango da. Betiko lez, Arrateko Jaiaren aurretik izango gaituzue zuen buzoietan: **irailaren 5ean kaleratuko dugu hurrengoa.** Ondo pasa bitartean!

Erredakzioa

Hortik esanak



Munduko teknologien artean estrategiko bezala onartutako 64 garrantzitsuenen artean, eurretako 57 Txinak lideratzen ditu, AEB-ak bost eta Hego Koreak beste biak. Orain dela bi hamarkada, AEB zen nagusi 64 teknologia horietatik 60tan, eurretako asko militarrek izanik. Joera hori askok saldu nahi izan dute gure medioetan merkatal gerra balitz bezala, egiatan gure eszenategiaren gainbehera besterik ez denean. Orain arte mendeetan, mekanizazioarekin batez ere, gizakia aktibitate fisikotik liberatzen joan da. Eta orain, Adimen Artifizialarekin, garunari egokitu zaio liberatzea.

IÑAKI EGAÑA, historiagilea

Gizakia animalia soziala da eta askoren artean egoteak segurtasuna sortzen du; horregatik, taldea ez apurtzeko eta elkarrekin jarduteko frenoak ipini behar zaie azkarrenei, oso geldoak direnak bidean ez galtzeko. Teknologia zer eragin izan dezakeen? Katuen eta txakurren kasuan ere, basati izatetik etxekoratze bidean egiaztatu da zituzten neuronek herena galtzen dutela; zertarako behar duzu erabiliko ez duzun burmuina janaria plateretan jartzen badizute? Azken batean, mundua burutsuenek sortzen badute ere, ergelena da bertan erosoan bizi direnak. Hori izango da homo-sapiensearen benetako inteligentzia?

PINO APRILE, kazetaria eta idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PILLO, PILLO, SANGARRA PILLO → Zeozer apartekoa aurkitzean esaten ziren berbak, poztasuna adierazteko. Umeek erabiltzen zituzten. “Pillo, pillo, sangarra pillo, masusta hónek!”

PIM-PAUM → Onomatopeia. Haizearen eraginez ateak itxi eta ireki ibiltzen direnean. “Itxi atiak, hor dabiz pim-paum da!”

PINPORTA → Kimua, ernamuina. “Etxe ondoko larrosei pinportak urtetzen asi jakue”.

Farmaziak

BARIXAKUA 18
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
MARTITZENA 22
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 23
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 24
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 28
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 29
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31))
EGUAZTENA 30
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUENA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 1
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
ZAPATUA 2
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 4
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
MARTITZENA 5
EGUNEZ Morgado (San Agustín, 3)
EGUAZTENA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbetón, 19)
BARIXAKUA 8
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
ZAPATUA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Morgado (San Agustín, 3)
EGUENA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
ZAPATUA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 31
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 1
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
MARTITZENA 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUENA 4
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI:
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Julen Albistegi Ormaetxea.** 15 urte. 2025-07-11.
- **Maria Elena Hernandez Cid.** 68 urte. 2025-07-11.
- **Txomin Azpiazu Agirre.** 74 urte. 2025-07-12.
- **Fernando Mardaras Intxausti.** 67 urte. 2025-07-12.
- **Angeles Barahona Apodaka.** 100 urte. 2025-07-13.
- **Justina Blanco Hernando.** 83 urte. 2025-07-13.
- **Nieves Retolaza Gonzalez.** 70 urte. 2025-07-13.
- **Maria Eugenia Elorza Iriondo.** 90 urte. 2025-07-15.
- **Rosa Martinez Insundia.** 94 urte. 2025-07-15.
- **Celia Zuazua Kortaberria.** 90 urte. 2025-07-16.





Idurre Iriondo

UDAKO ORDUTEGIAK

Udaletxea (Untzaga, 1)

- **Udal Sailak**
 - Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
 - Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15
- **PEGORA Bulegoa**
 - Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
 - Telefono bidezko arreta (08:00-14:00)
 - Itxita: uztailak 25 eta 31, abuztuak 15
- **KIROL INSTALAZIOAK**
- **Ipurua**
 - Astelehenetik barixakura (07:30-22:00)
 - Zapatuak: (09:00-13:00/16:00-20:00)
 - Domekak/Jaiegunak (09:00-13:00)
- **Unbe**
 - Astelehenetik barixakura (10:00-22:00)
 - Zapatuak (09:00-20:00)
 - Domekak/Jaiegunak (09:00-20:00)
- **Orbea**
 - Astelehenetik barixakura (07:30-21:30)
 - Zapatuak (09:00-14:00/17:00-20:00)
 - Domekak/Jaiegunak (09:00-14:00)
- **KANPOKO IGERILEKUAK**
 - Uztailaren 1etik Irailaren 8ra (10:30-20:30)
 - Irailaren 9tik 29ra arte (11:00-19:00)

Portalea (Bista Eder, 10)

- **UZTAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-20:30)
- **ABUZTUA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
- **IRAILA:**
 - 1etik 5era: astelehenetik barixakura (09:00-20:30)
 - 9tik 30ra: astelehenetik barixakura (09:00-21:30)
 - Zabalik azken bi asteburuetan: 20an eta 27an (10:00-13:30/16:00-21:00) 21ean eta 28an (10:00-13:00/16:00-21:00)
- **Juan San Martin Liburutegia**
- **UZTAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:30-19:30)
- **ABUZTUA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
 - 11tik 22ra, ikasgela bakarrik zabalik
- **IRAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:00-20:30)
 - 20/21 eta 27/28 asteburuetan, ikasgela bakarrik zabalik (10:00-13:00/16:00-20:00)

Euskara Zerbitzua

- **UZTAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
- **ABUZTUA:**
 - 4tik 22ra itxita
- **IRAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)
- **Gizartekintza**
- **UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA:**
 - Astelehenetik barixakura, arreta prezentziala zein telefono eta email bidezko arreta (09:00-13:00)
- **Andretxea**
- **UZTAILA:**
 - Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)
- **ABUZTUA:**
 - Itxita
- **IRAILA:**
 - 1etik 30era (09:00-13:00)



Udako Aukeren Azoka zabalduko dute martitzenean

Datorren astean, martitzenetik eguenera bitartean egingo da Udako Aukeren Azoka, Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) eta Eibarko Udalak elkarlanean antolatuta. Aurtengo “factoring” edo merkealdien azokan 29 establezimenduk hartuko dute parte, horietatik 20 Toribio Etxebarria kalean jarriko dituzten karpetan, eta gainontzekoek dendan bertan egingo dituzte eskaintza bereziak. Inau-

gurazioa martitzenean, 09:45ean izango da, antolatzaileak, tokiko agintariak eta Eibarko merkataritzako ordezkariak bertan direla. Azoka egun osoan egongo da zabalik, 10:00etatik 20:00etara hiru egunetan.

Euskeraz Primeran! poltsa oparituko dute

Urtero lez, ...eta kitto! Euskaraz Primeran! ere mahaia izango

du Udako Aukeren Azokan, eta euskararen erabilera sustatzeko ekimena egingo du bertan. Asmo horrekin, herritarrek euskararen erabilerarekin sentsibilizatzeko dinamika bat prestatu dute ...eta kitto! elkarteok: “Dinamika horretan, postura gerturatzaren diren herritarrek sektoreka bildu beharko dituzte denden logotipoak, eta euskararekiko konpromiso zehatzen bat hartu beharko dute. Trukean Euskeraz Primeran! ekimeneko erosketa-poltsa eramango dute eta, gainera, 100 euroko balioa duen erosketa-txartela irabazteko aukera ere izango dute”.

Amaña auzoko nagusien omenezko bazkariarekin agurtuko ditugu jaiaik

Aurreko asteburuan ospatzen hasi ziren Amañako Jaiek jarraipena izango dute honetan ere, gaur 14:30etik aurrera Unzaga Plaza hotelean egingo den jubilatuentzako bazkariarekin. Amaña auzoko jaietan egon den giro ona dela eta, pozik daude antolatzaileak. Urtero bezala, jendeak oso ondo erantzun duela adierazi du Josean Alberdi

Goma jaien antolatzaile nagusiak. Hala ere, pena pixka bat ere badauka, “barixaku gaueko ekaitzaren ondorioz Lendakaris Muertos eta Modus Operandi taldeen kontzertuak bertan behera laga behar izan genituen eta”. Taldeekin batera, kontzertuak egiteko data bila ari dira eta, seguruenik, urrian joko dutela aurreratu dute.





Jaiak antolatzen zituen taldeak bazkariarekin ospatu zuen San Kristobal

Aurreko asteko eguenean, uztailaren 10ean San Kristobal eguna izan zela ospatzeko bazkaria egin zuten sasoi batean auzoko jaiak antolatzen zituen jai batzordeko kideek. Izan ere, antolaketa-lanetan aritzeko erreleborik ez zegoela eta, jaiak antolatzeari laga zioten orain dela urte batzuk, baina, hala ere, jai batzordeko kideek urtero egiten dute San Kristobalen ome-

nezko bazkaria berdin-berdin. Eibarko Lambretta Klubekoek ere, gidariak babesten dituen santua gogoan, zapatuan atera zituzten motorrak errepidera, Lambretta motorren XX. Kontzentrazioan. Bestetik, Xania tabernakoek sardina-jana antolatu dute gaurko, 20:00etan. Eta 22:30ean V. Igel Txapelketa jokatu da (izen-ema-tea doan da).

Uztailen eta abuztuaren ere odol-erazketak egingo dituzte Untzaga zentroan

Hamabostean behin etortzen dira Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartetik Untzaga Gizarte Zentrora, odol-emaileei odola ateratzera. Aurreko astean egindako argazkian medikua, erizainak, teknikaria eta Lucia, Eibarko ordezkariatzako boluntarioa daude. Erazuketak eta probak (tentsioa, azukrea...) erakusketa-aretoan egiten dira, eguen arratsaldetan, eta udan ere betiko martxan arituko dira (uztailaren 24an, eta abuztuaren 14an eta 28an). Hitzordua aurretik hartu daiteke, Internet bidez (www.gotatanta.eus) edo 943007884 telefonoan.



Jabetze Eskolako ikastaroetarako aurrematrikula irailaren 1ean hasiko da

Udazken honetan ere Emakumeen Jabetzarako Ikastaroak eskainiko dituzte Andretxean. Antolatu duten programazioaren baitan, honako hauek euskaraz izango dira: “Autodefentsa Feminista tailerra”, “Mugimendu adierazkorra lantzeko tailerra: gorputz adimena, emozioak eta ahalduntzea” eta “Gure inguruko sendabelarrak ezagutu

eta erabiltzen hasteko oinarritzko ikastaroa”. Eta “Zoru pelbikoa indartzeko tailerra: gure gorputzak ahalduntzen”, “Emakumeak inprobisatzen” eta “Diafreoa: tentsio muskularrak askatuz eta gure bizipenak integratuz”, berriz, gaztelaraz emango dituzte. Aurrematrikula irailaren 1etik 23ra egin ahalko da.



Irailaren 27an ospatuko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen jaia

Azken urteetakoei jarraituz, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuko da ...eta kitto! Jaiaren (lehenengo Sagardo Eguna) 30. edizio hau ere.

Ohikoa baino astebete lehenago, irailaren 27an, ospatuko da aurten ...eta kitto! Euskara Elkartearen jaia, lehenengo "Sagardo Eguna". Izen aldaketa iaz egin zuen euskara elkar-teak, herritarrek elkarte hobeto edo gehiago ezagutzeko helburuarekin. Orain arte urriko lehen zapatuan egin bada ere, aurten ezinezkoa da data horri eustea, asteburu horretan jokatu baita UCI mailako emakumeen Eibarko Hiria Sari Nagusia.

Hori bai, irailaren azken zapatuan egingo den ...eta kitto! jaiak ohiko helburuei eutsiko die, hau da, euskal giroa sustatzea, euskaraz berba egiteko espazioak sortzea, herriko giroa piztea...

Azken urteetakoei jarraituz, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuko da 30. edizio hau ere: eguerdiko 12:00etatik 15:00etara lehenengo, eta 18:30ean hasi eta 20:00ak arte bazkalostekoa. Aurten ere sagardotegi desberdinetatik ekarritako sagardoa dastatzeko aukera izango da. Tiketak 10 eurotan salduko dira (edalontzia + zapia + pintxoa), eta pintxoa soilik nahi dutenentzat 2 euroko tiketak egongo dira.



Aintzane Agirrebeñari aitortza

Goizeko saioa 12:00etan zabalduko da eta, txotx egitearekin batera, euskaltzaletasunari eskainitako saria jasoko du Aintzane Agirrebeña euskal filologo eta musikariak.

Iazkoari jarraituz, musikak gitoruko du iluntzea, aurten Latuna Bando txaranga eibartarrarekin. Egun osoan photocolla egongo da, eta haurrentzako jolasak ere egongo dira, besteak beste.

Egunaren bigarren zatian, arratsaldekoan, luxuzko asteburua zozketatuko da tiket-salmenta puntuan, 20:00 bueltan. Rifak salgai daude euro batean hainbat tokitan.

“Matxismoak beldurrez bizitzera kondenatzen gaitu eta klase sozialaren arabera larriagotu daiteke”

ROSE AGUIRRE • Komunikatzailea



Bere historia entzunda, Rose Aguirrek zazpi bizitza bizi izan dituela dirudi. Txikitatik egin behar izan dio aurre aurrean jarri zaizkion oztopo latzei eta, aurre egiteaz gain, indartsuago, solidarioago, konprometituago eta erresilienteago irten da egoera horietatik. Biziraulea da, baina bizirauteari laga eta bizi egin nahi du. Hortan dabil Eibarren.

Rose Aguirre, bere berbetan, ama, alaba, ahizpa, Perukoa, kazetaria, idazlea batzuetan, aktore izandakoa, kirolari izandakoa, feminista, naturaren maitalea, Peruko ezkerreko alderdi politiko baten sortzailearen iloba, jatorri euskaldunekoa, emakume migratzailea, borrokalaria eta erresilientea da. “Hitz bakar batek definituko banindu, ‘erresilientea’ izango litzateke berba”, esan digunez.

Goazen jatorrira. Perukoa zara, Limakoa, baina nolakoak izan ziren zure lehen urteak?

Peruko iparraldetik eta hegoaldetik dator nire familia. Ama Ayabacakoa da, Piuran dagoen herri batekoa, herrialdearen iparraldean. Bero asko egiten du, oso txiroa da eta ahaztua hiriburuan, Peruko probintzia gehienak bezala. Aita Liman jaio zen, baina bere aita Cuzcora iritsi zen lehenik eta herrialde osoa zeharkatu zuen gaztetatik. Bost urterekin irten zen Euskaditik itsasontzi batean eta Perun bueltara ibili zen amama Julia ezagutu arte. Bera ere biziraulea da.

Zure gurasoak Liman ezagutu zuten elkar?

Bai. Ama iparraldetik etorri zen bere amama zaintzera, berarentzat ama bezalakoa zelako. Beste biziraule bat.

Azkenean, Barrios Altosen (Limako auzo bat) geratu nintzen eurekin, hara joan zirelako bizitzera, eta bera zaintzen egon nintzen 86-87 urterekin hil zen arte. Niretzat ama eta amama zen aldi berean, berarekin pasa nuelako haurtzaroaren gehiena.

Gauza asko izan zarela aipatu duzu, baina kazetaritza helduko diogu. Nola iritsi zinen kazetaritzara?

Kazetaritzak aurkitu egin ninduen. Artista eszenikoa nintzen. Dantza eta antzerkia egin nuen urte askotan, eta katarsia egiteraino idazten nuen. Gurasoek ez zidaten antzerkia edo arte eszenikoak ikasten lagatzen, eta bi aukera nituen: kazetaritza edo zuzenbidea egin. Perun oso zaila da arteaz bizitzea, batez ere emakumea eta oso gaztea bazara. Arte Eszenikoak ikasi ahal izateko unibertsitate batean sartu ahal nintzen, baina ordaindu beharreko kuota altuegia zen eta, beka jasota ere, ezin genuen ordaindu, eta beste unibertsitate batean sartu nintzen kazetaritza ikastera. Zorionez, lehenengo bi urteetan humanitateetako ikasgaiak genituen (filosofia, antropologia, soziologia...) eta gai ezberdinen inguruko ezagutza zabala eman zidaten: munduari modu globalean begiratzeko, pertsonen gizaki bezala begiratzeko eta bakartasunetik harago begiratzeko, hau da, kolektibo bezala.



Peruko kazetaritza eta politikaren mundua bertatik bertara ezagutzen du Rose Aguirrek. EKHI BELAR

Begirada horrek mota bateko kazetaritza baterantz bideratu zintuen?

Esan behar da unibertsitatera nahiko historia gogorarekin iritsi nintzela. Barrios Altos oso zonalde zaila da. Lima erdialdean dago eta hor daude Gobernuaren Jauregia eta abar, baina era berean oso toki babesgabekoa da. Droga asko dago, delinkuentzia, adingabeen abusuak... Oso errealitate beldurgarri eta katastrofikoa bizi da. Aldi berean, bere alderdi bikaina ere badu (dantza, festa, zoriona...), baina ezin ditugu pobrezia eta abusuak erromantizatu. Mota askotako biolentziak jasaten ditugu bertan eta gurasoak saiatzen ziren ni horietatik urruntzen, baina konturatzen nintzen. Etxeko leihotik dena ikusten nuen. Oso behatzaila eta sentibera nintzen. Amama hil zenean handik irten ginen, baina han bizitakoak erakutsi zidan errealitatea ez zela etxean bakarrik ikusten nuena edo egunkariak kontatzen zidatena.

Nora joan zineten bizitzera?

Brasil etorbidearen inguruan dagoen klase ertaineko auzo batera, eta etxetik hurbil zegoen ikastetxe batean hasi nintzen. Dena dela, lehengo eskola nahiago nuen.

“Auzoan oso errealitate beldurgarri eta katastrofikoa bizi zen eta, aldi berean, bazuen alderdi bikaina ere, baina ezin dugu pobrezia erromantizatu”

Zergatik?

Lagunkoiagoa zelako, errealagoa. Ikasleek ez zituzten itxurakeriak egiten eta ez zituzten besteak txarto tratatzen eurek ikusten zituzten moduagatik. Ikastetxe berrian irakasleek eta abar ondo tratatu ninduten, baina hipokresia asko zegoen ikaskideen artean. Txutxumutxu asko zegoen nire jatorriaren inguruan eta nerabezaroan gauza horiek arazoak sortzen dizkizute. Nor naiz? Nor izan nahi dut?...

ELKARRIZKETA OSOA



Nola moldatu zinen testuinguru ezberdinetan mugitzeko?

Plastilina edo ura modukoa nintzen eta horrek norberaren identitatean eragiten du. Edozein edukiontzitan sartu ahal nintzen eta ondo egokitu, baina horrek kostu bat dauka. Hain ondo egokitzen nintzen testuinguru guztietara, nor nintzen ere ahazten nuela. Argi nuen nolakoa nintzen, pertsona ona nintzela, erresiliente, eta abar; baina nor naiz pertsona ona izateaz gain? Hauek nire bizipenak dira, baina nire bizipenak bakarrik naiz edo zerbait gehiago? Txikitan oso bizitza gogorra eduki nuen eta oso gazte heldu nintzen. Ia ez nuen haurtzarorik eduki. Ume heldua nintzen eta nerabezaroa kaosa izan zen niretzat, asko sufritzen nuelako. Ezingo nuke sufrimendu-maila hori deskribatu, baina prozesu hori guztia idazten pasa nuen eta horregatik animatu ninduten kazetaritza ikastera. Gainera, beti izan dut justiziarekiko begirunea: justizia aurkitzea, gauzak zergatik gertatzen diren jakitea...

Kazetaritzaren bitartez bilatu duzu hori?

Bai. Kazetaria naiz, baina baita komunikatzailea ere eta niretzat gauza ezberdinak dira. Unibertsitatean aukerak eman zizkidaten, maila handiko kazetarietan nigan konfiatu zutelako. Irakasle bat 'El Peruano' egunkariako editorea zen eta egunkariak piropoen inguruko iritzi artikulu bat argitaratu zuen, esanez piropoak ez zirela erasoak edo horrelako zerbait. Zalaparta sortu zuen kontuak. Irakasleak artikulua inguruan genuen iritziaz galdetu zigun eta nirea eman nion. "Eta ez duzu hori idatzi nahi?", esan zidan. Baietz erantzun eta egun horretan bertan idatzi nuen. Asko gustatu zitzaioela esan zidan eta hurrengo egunean argitaratu zuten.

Zure artikulua nolako oihartzuna izan zuen?

Artikuluaren esaten nuen piropoak eraso matxistak zirela. Bertan nioen gizon batzuren iritziak laudorioak direla, baina erasoak zirela benetan. Perun bizi den biolentzia oso krudela, basatia eta hiltzailea da, eta matxismoak beldurrarekin bizitzera kondenatzen gaitu. Gainera, klase sozialaren arabera egoera hori larriagoa izan daiteke.



"Betik eduki izan dut justiziarekiko begirunea: justizia aurkitzea, gauzak zergatik gertatzen diren jakitea..."

Artikuluak idatzi zenuenetik, zentzu horretan Perun bizi den egoera aldatu dela esango zenuke?

Matxismoari eta eraso sexistei dagokienez ez. Are gehiago, okerrera joan da edo, agian, orain gehiago salatzen da. Kontua da Perun ezin dela salatu. Salatu dezakezu, baina gero biolentzia instituzionala dago. Adibide hau jartzen dut ulertzeko: ume bat sexu-abusuak salatzea doa amarekin eta esplorazioa egiten dion medikuak berriz bortxatzen du. Eta esplorazioa hasi baino lehen ere, umeari esaten diote ea zer egin duen aitzak bortxatzea probokatzeko. Hori ezagutzen ditugun kasuengatik esan dezakegu, gazteleraz daudelako, baina Perun hainbat hizkuntza daude (ketxua, aimara...) eta gazteleraz ez dakienak ezin du salaketarik egin.

Elkarrizketa osoa: WWW.ETAKITTO.EUS

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

**irailak 7
domeka**

**ARRATEKO
BERTSO AFARIA**

**Tiro Pitxon
21:00**

Sarrerak salgai
BAZKIDEENTZAT
uztailaren 14tik 23ra
...eta kitto!-n (38€)
(10:00-13:00 / 17:00-19:30)
Uztailaren 24tik aurrera
Guridin, Kultun eta
Tiro Pitxonen (40€)



ANDONI EGAÑA



IKER ZUBELDIA



MAIDER ARREGI



MAIALEN LUJANBIO

Herriko historia ezagutzen industriaren hariari jarraituz



Eibarko Udalak, Nerea Alustiza historialariaren eskutik, herriko historia ezagutzeko bisita gidatuak eskaini ditu azken urteotan, udako eta Aste Santuko oporretan. Aurtengoan, sei saio eskainiko dituzte abuztuan: 7an, 14an, 21ean eta 28an (azken hau izango da euskaraz egingo den bakarra) 18:30etik 20:00etara, eta 3an eta 31n 11:30etik 13:00etara. Bertan parte-hartzeko, San Andres eliza parera gerturatu beharko da saioa hasi baino 10 minutu lehenago.

BIDEOA



Eibarko historia ezagutzeko bi bisita gidatu mota prestatu izan ditu Alustizak. Batean, Gerra Zibilaren aurreko Eibar ezagutzeko aukera ematen du; eta bestean, Gerra ostekoa, industria ardatz duelarik. Abuztuan eskainiko dituen bisitek bigarren bide hori hartuko dute, eta Gerrak suntsitutako Eibarren berpiztea eta loraldia nolakoa izan zen emango du ezagutzera. “Eibar suntsituta geratu zen, lur-jota, baina berpiztea eman zen, herri izatetik hiri bilakatuz”, historialariaren berbetan.

Eibarko historia beti egon da industriari oso lotuta, baita Gerra aurretik ere, baina horren ostean egon zen bilakaera nabarmena izan zen. “Industriari esker, 60. hamarkadan Eibar Espainiako per capita errenta altuena edo altuenetakoa zuen hiria izan zen”, Alustizak esan digunez.

San Andres elizatik Urkizuraino

Bisita gidatuan herriko hainbat eraikin bisitatzeko aukera ematen da eta Alustiza argazki zaharrez ba-

liatzen da iraganarekin alderaketak egiteko eta, suntsituta edo eraldatuta dauden eraikinen edo guneen kasuan, nolakoak ziren erakusteko. “Adibidez, argazki zaharretan ikusi daiteke nola ibaia bistan zegoen, gaur egun ia ikusten ez duguna. Etxeak ere txikiak ziren, bi edo hiru solairukoak, eta gaur egun zazpi edo zortzikoak dira orokorrean, eta dorreak ere baditugu”, diosku Alustizak.

Bisitak San Andres eliza parean hasiko dira. “Eskerrak Gerran eliza ez zuten suntsitu”, dio historialariak. Argazki zaharrekin iraganean inguru hori nola zegoen ikusi eta alderaketak egingo dituzte, ondoren Bidebarrieta eta San Agustin kaletik pasa eta Errebalen geldialdia egiteko. “Muzategi kalera begira jarriko gara, hori delako Eibarren ezaugarri bereziaren eredu garbia. Bertan, beheko solairuan tailerra ikusi dezakegu (bere sasoiak Zapata zena), aldapa batean. Hor ikusten da nola libratzen ziren bertako orografiaren oztopoak. Eibarren ez dago oztopo-



Abuztuan zehar herriko historia ezagutzeko sei bisita gidatu eskainiko ditu Nerea Alustiza historialariak. EKHI BELAR

rik, arkitektoak tokiaren baldintzetara moldatzen dira”, Alustizaren berbetan. Gainera, toki horretan beste ezaugarri bat nabari da, tailer horien gaineko solairuan La Merced eskola zegoelako eta gorago etxebizitzak. “Hori guztia metro karratu gutxitan”, azpimarratzen du historialariak. “Hori da Eibar”.

Handik Ibarkurutzera joko dute, Arraguetan ‘Mendiguren y Zarraua’-ren etxera joan eta argazki zaharrekin tailerra nolakoa zen ikusiko dute. “Gaur egun Ogasunaren eraikina dagoen tokian zegoen ‘Mendiguren y Zarraua’”, argitzen digu. Arikitza kaletik jaitsiko dira gero Laspiur tailerra aipatzeko, eta Aurrera eraikinean sartuko dira ondoren. Urkizurainoko bidea hartuko dute ondoren, BH-ra iritsi arte eta Eroski gaineko eraikinean ere sartu egingo dira ibilbidea amaitzeko.

Arkitektoen garrantzia

Eraikin industrialek Eibarko historian duten garrantzia nabarmenduko duen arren, Alustizak herriko kaleen transformazioa ere azpimarratzen du: “Berreraikitzearekin, kale batzuk desagertu eta berriak sortzen dira. Zertarako? Donostia-Bilbo joan-etorria bideratzeko eta hiri ikuspegia emateko”.

Planifikazio horretan arkitektoen papera berebizikoa izan zen historialariaren ustez. “Adibidez, Ramon Maria de Martiarena zumaiarrak Sorian ez dakit zenbat eraikin egin zituen eta handik hona etorri zen”, azaldu digu. “Gainera, kontuan hartu behar da Gerra ostean Eibar ‘Regiones Devastadas’ moduan klasifikatu zutela, Francoren esku-hartzea hiriaren berreraikitzean... Hortik etorri ziren Martiarena, Dominguez Eloseg, Raimundo Alberdi eta beste arkitekto batzuk”.

Nerea Alustiza historialariaren eskutik Eibarko historia ezagutzeko sei bisita gidatu egingo dira abuztuan

Gerra osteko Eibar ezagutzeko aukera emango du, herriaren berreraikitzean industriak izan zuen garrantzia azpimarratuz



60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, urtero errepikatzen zen argazkiko irudi hori.

Opor sasoian lantegiak itxi egiten ziren eta, kanpotar asko euren herrietara itzultzen zenez, Eibar hutsik geratzen zen. Oporretatik bueltan gainera, joaten zirenak baino gehiago itzuli ohi ziren. Lana sobera zegoenez, senitartekoak etortzen ziren oporretan joaten ziren haiekin.

Oporretara lau joan eta bost itzuli

Jose Antonio Albizu Agirrebeña
(1940)



Ardantza kalean jaio zen Lau senidetan gazteena eta mutil bakarra izanik, mutilaren jaiotzaren albistea aitak pozarren hartu zuela kontatzen du. Isasi kalean zegoen “Sagrado Corazón” ikastetxean burutu zituen oinarritzko ikasketak eta Lucas Alberdirekin ikasi zuen marrazten udaletxeko marrazketa-eskolan. 14 urterekin hasi zen Eibarko “Aguirre y Aranzabal” (AYA) lantegian grabatzaile moduan. Aprendiz bezala jardun zuen Jose Rodriguez Alday, “Errekalde”, grabatzailearen kargura lehenengo urteetan. 1985. urtera bitartean jardun zuen AYAn.

Jose Antonio Albizuri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Eibarren hárek denporetan, *setenta para abajo*, taillar guztiak itxi egitten ziran, Eibar guztia itxi egitten zan. Esate baterako, itxi egitten zan Eibar guztia [Kanpotar asko Eibarren...]. Bai, bueno! Urtetzen ziran... ez dozue entzun, ez dakazue...? Hamen autobusak juaten ziran baiña baiña, zelan esaten da? Gerra denporan, hori, desbandada hori? Bueno, bueno, bueno! Demasekua zan! Gero bueltan, bazoiazan lau bost etortzen ziran, edo gehixago. Hamendik juaten zanak familixa guztia ekartzen eban ahal bazeban, nun sartu bazekan. Hamen lana eguan, bueno... ta danendako, gaiñera! (...)



DANIEL DEL PRADO

Ametsak jarrai dezan

Lau urte besterik ez nituen aurrenekoz erabaki nuenean nagusitan izan nahi nuena: astronauta. Goitik jotzen nuen, alajaina! Nekez ikusten dut gaur egun neure burua Sara García Alonsoren bizimodua eramaten baina.

Denbora pasa ahala, ideia hori hutsaltzen joan zen, kosmosak neure jakin-mina pizten bazuen ere. Horrela, musika-eskolan ikasten hasi nintzenean, beste grina bat hasi zen neure buruan ibiltzen: *saxofoijole* rockeroa izan nahi nuen, horixe zen nire etorkizuneko helburua. Bi gauzak batera, bi terminoak banatu barik. Espaziora heltzea baino errazagoa denik ez didazue ukatuko.

Nafarroako landa eremuko gazte batentzat, hala ere, ez zen beti erraza musikaren ibilbide akademikoan aurrera jarraitzea, logistika arrazoiengatik. Beraz, zientzia eta teknologiarara bideratu nituen ikasketak, energia berriztagarrien alorrak erakarrita. Baina erabaki hau hartuta ere, musikak pisu esanguratsua zuen niretzat, eta zaletasun hori gauzatzeko urratsak ematen hasi nintzen, saxofoijole rockeroa izan nahi zuen haur horren ametsa nola edo hala betez. Aurrerakuntza eta ikaskuntza anitzeko garai oparoa izan zen, zalantzarik gabe.

Ordutik, amateur maila batean, musikari lotuta egon naiz. Hala ere, impasse batean eman ditut azken urteak saxofoiari dagokionez, eta onartu beharra dut zaila egiten zaidala honi berriro ekitea. Bizimoduaren aldaketak zerikusirik izan dezake horretan? Ala, beharbada, haize-egurrezko harreman honi txinparta itzali zaio?

Bada, joan den astean berriz egin nuen topo neure barnean oraindik bizi den haur ameslariarekin, gure herrian ospatu zen musika-jaialdian. Saxofoiaren doinuak loaldi luze batetik esnatu izan balira bezalakoa izan zen. Ni, bitartean, aspaldian ez nuen lilura batek hartu ninduen. Itzalita zirudien txinpartak berriro argitzen zuen.

Esango nuke, alabaina, ez nintzela ameslari bakarra izan joan den astean, badela jaialdiarekin bere nahia bete zuenik. Horregatik, lerro hauek baliatu nahi ditut (bere burua aipatutzat jotzen badu, bederen) hura ere zoriontzeko, bai lortutakoarengatik, baita horrek izan duen eraginarengatik ere. Kasurako, *latterriari* hautsa kendu diot, ametsak jarrai dezan.

“Joan den astean berriz egin nuen topo neure barnean oraindik bizi den haur ameslariarekin, gure herrian ospatu zen musika-jaialdian”

Kanpora joan? Eskualdean holako jaiak izanik?

Atzean laga genituen Sanjuanak, baita Sanpedro jaiak ere ondoren, eta aurreko asteburuan ospatu ziren Amañako jaiak. Orain tartetxoa dugu gurean, Arrateak iritsi arte. Baina askorik mugidu barik, jai mordoa izango ditugu inguruan, hurrengo ikasturtea hasi aurretiko sei bat aste parranda giro onean igarotzeko parada eskainiko dizkiguten jaiez aprobeztatzeko.

Hemendik aurrerako opor sasioan (ez guztientzat, baina gehienontzat seguru bai), jairik jai ibiltzeko aukera izango da Euskal Herri-
tik irten gabe ere. Datorren astetik hasita, uztailaren 22ko Madalenak, Mutrikutik kanpo, Durangon ere ospatzen dira, eta baita Bermeen eta Oñatin ere. Uztailaren 25eko Santixauekin, bestalde, Ermutik eta Soraluzetik kanpo, hogeitik gorako beste hainbat herritan gozatu-
tuko dute, tartean Etxebarrian eta Goimendin. Hilaren 26ko Santanak, Mendarotik aparte, Arrasaten eta Ordizian ere ospatuko dituzte. 30eko Santaluziak Zanbranan izango dira eta, uztaila amaitzeko, 31ko Saniñaziak Azpeitian, Antzuolan, Elorrian eta Lekeition, beste batzuen artean; egun bereko Santabarbarak Hernanin ospatzen dituzten bezala.

Behin abuztuan sartuta, hilaren lehenengo egunean Kopraixak izango ditugu Itziarren, 2an Xantistebanak Aramaion eta Oiartzunen, 4tik 9ra Gasteizko Andra Mari Zuriaren jaiak garatuko dira, Sallobentiak ospatuko dira 5ean, eta Sansalbador-
rak 6an, gure herriko auzoan

tarteko, ahaztu barik Gala Eguna egingo dutela Zumaian. Hurrengo egunetan joango dira Santanak eta Santodominguak 8an, Sanromanak 9an eta Sallobentiak 10ean, azken egun horretan Elgoibarko eta Ermuko auzoek protagonismoa eskuratuz. Abuztuaren 11n Santiburtziuak

dira, 12an Euskal Jaixa egiten da Zumaian, eta egun horretatik hilaren 18ra luzatuko da Donostiako Aste Nagusia.

Jaiei begira, herri gehien hartzen dituen jai-eguna (hemen zein hemendik kanpo) dator jarraian, urrutira joan barik ere 15eko Andramai-
xak ospatzen baitituzte Soraluzen, Mallabian, Elgetan, Ondarroan, Azkoitian eta Aretxabaletan, ahaztu barik gurean Azitainen beti izaten dutela euren tokia. Hurrengo egunean, 16an, Sanrokiak piztuko dira Deban, Mallabian eta izen bereko Elgoibarko auzoan. Ondoren, hilaren 18tik 27rako bitartea Bilboko Aste Nagusiak hartuko du, baina tarte horretan Kuadrilla eguna egingo



>>> Mutrikun bihar piztuko da jai giroa eta 25eko Kuadrilla Eguna arteko egitaraua dute zain

>>> Ermuan gaur Gatiburekin hasi eta hurrengo domekako Agur Jaunak! arte izango da zer ospatu

da Zumaian (20an) eta Sanbartolomias hasiko dira Elgoibarren, 24an hain zuzen ere. Hilaren 28an Sana-gustiñak helduko dira Hernani eta Legazpira, eta 31ko azken egunean San Ramon Nonatuak aurkituko ditugu Mallabian.

Irailarekin batera, azkenek, eta gure Arrateei heldu aurretik, irailaren 1etik Sanantoliñekin gozatzeko aukera izango dugu hainbat herri-tan, Lekeitio tarteko, eta 3an San Gregoriuak izango dira Ataunen.

Ondoren, errepasotxo eskainiko diegu gertuen ditugun jai batzuei, datorren astean abiatuko direlako batetik, eta Debabarrena eskualdean bertan ditugulako bestetik.

Madalenak Mutrikun

Hilaren 19an hasi eta Santixo Egunera arte iraungo dute kostaldeko herriko jaiak. Bihar, zapatua, txupina eta Gaztetxetik hasiko den Txaranga a la mutrikuarra izango dira, Marimatraka batukada feministarekin batera. Gauez Izaki Gardenak kontzertua joko du Goiko plazan eta Akeer eta Malakias MX3 izango dira txosnagunean. Domekan La Jodederak joko du azken espazio horretan, 20:00etatik aurrera.

Malen bezperan, astelehenean, Mozorro Eguna ospatuko dute. Jaien txupinazoa botako dute, esku-pilota jaialdia izango da (Mikel Goñi tartean) eta, Bezperak eta Salbeak euren tarteak izango duten



bezala, DJ Rikki mutrikuarrak giro-tuko ditu herriko kaleak. Ahaztu barik hor izango direla "And the Oscar goes to... Bizixo!" antzerkia eta Play-back txapelketa. Malen Egunean, hilaren 22an, Meza Nagusia, sokamuturra, herri-kirolak eta su artifizilak izango dira. Musikari dagokionez, Arratians, Ganibet eta Kaparrak joko dute txosnagunean, Goiko plazan Fan And Gokerromeria eskainiko duen bitartean. Eguaztena Malen Txiki Eguna izango da, umeak protagonista bihurtuko dituena, erraldoi eta buruhandien konpartsa, Garbijai ikuskizun parte-hartzailea eta umeen danborradarekin. Go!azen karaokea egongo da eta Selektah Stepik jardungo du txosnagunean.

Egueneko Kuadrilla Egunean Latuna Bando txarangak alaituko ditu kaleak, sokamuturra eta futbitoaren zezenekin egingo dira eta, Süne taldeak Goiko plazan eskainiko duen kontzertuaz aparte, Gozue, Laket eta DJ Jusef izango dira txosnagunean. Santixoko azken egunean Kukai dantza konpainiak "Euskorleans" ikuskizuna eskainiko du Goiko plazan eta bertso-saio musikatuak izango dira txosnagunean.

Santixauak Ermuan

Ohiko bidetik, aurreko ere luze joko dute Ermuko Jaiak, gaur bertan hasi eta 27ra arte. Gaurkoan txarangen arteko jolasak, DJ Festa eta Gatibu taldeak San Pelaio plazan eskainiko duen kontzertua izango dira. Bihar erakusketa-txakur-aren lehiaketa, 7 futbola-txapelketa eta Urkora 69tan ezetz! eta dantza emanaldia izango dira ardatz, gaueko Los Zigarros taldearen kontzertuarekin batera. Domekan I. Bizikleta Jaitsiera DH Ermua probak berrietasuna ekarriko du eta arratsaldean musika eta dantza jaialdia eskainiko dute Ruandako Ingoma Nshya eta Georgiako Tsu Flying Georgians taldeek.

Martitzenera helduta, 22 horretan profesionalen arteko pilota partiduak eta Maite Larbururen kontzertu akustikoa nabarmendu daitezke. Uztailaren 23a, eguaztena, Umeen eguna izango da, eurentzako txupinazoa, buruhandi, ur-parkea, tailerrak, txokolate-jana eta aparjaiarekin; ahaztu barik hor izango direla haurrentzako disko-festa eta Txurru DJ-ak aurkeztuko duen Festan Blai. Santixau bezperako eguen horretan botako dute txupinazoa 19:00etan, Irulitxa eta New Toca-dos musika bandek eta Brincadeira batukadak alaituta. Techno Jaialdia izango da gauean, Vulkano Show orkestraren dantzaldiarekin batera.

Santixau egunean bigantxak, haurrentzako parkea, Meza Nagusia eta herri-kirolak izango dira goizean, Eibarko Ustekabe txarangen kalejirarekin batera. Arratsaldean pilota partiduak, erraldoi eta buruhandien kalejira eta larrain-dantza izango dira, beste ekitaldien artean. 22:30ean "Glubs" kale-ikus-kizuna eskainiko du Yllana konpainiak eta, jarraian, dantzaldia izango da Nueva Alaskarekin. Zapatuan, hilaren 26an, nagusiak omendu-

ko dituzte, Mariachi Imperial taldeak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu, Emakumezkoen VI. Bolo Palma txapelketa jokatu da eta, behin gauera iritsita, rock jaialdia izango da goizaldeko 03:00ak arte. Eta azken egunean, domekan, paela-lehiaketa eta sardina-banaketa izango dira protagonista, Castells erakustaldiarekin batera, eta jaiak agurtzeko suziriak botako dituzte lehenengo, jarraian Agur Jaunak abesteko Orbe Kardinalaren plazan.


Santixauak eta Santanak Soraluzen Uztailaren 24an hasi eta 27an amaituko dira jaiak. Kainoikadarekin emango zaio hasiera jaiari eta, ondoren, pregoia botako dute Soraluzeko Musika Eskolako ki-deek, 35. urteurrena ospatzen ari baitira. Adin guztietarako antolatutako ekintzen artean daude Kantujira Plaentxia Kantuan taldearen eskutik, Toka eta Igel txapelketa Galtzagorriek antolatuta, jaien aurretiko beroketarako zunba saioa, herriko musikariek sortutako Sagar-Erreka Mix ikuskizuna, azeituna hezur jaurtiketa txapelketa, Larraian dantza herrikoia Euskal Jai Batzordeak antolatuta, Bizijolas jolasgune erraldoia, zezen suzkoa



>>> Mendaroko Santana Jaiek bi asteburu hartuko dituzte oraingoan, biak ere ondo beteak

eta erraldoi, kiliki eta buruarinen kalejirak eta Soraluzeko emakumeen batukada feminista. Horietaz gain, kultur aniztasunak ere izango du lekua jaietan Soraluzeko arrosak ekimenari esker. Baita herriar ugari biltzen dituen bakailao-lehiaketa eta mus-tute txapelketak ere. Gainera, Ikas Bidairako dirua batzen diharduten gazte-txoen eskutik bingoa eta haurren txokoaz ere gozatu ahal izango da, herri-bazkariaren ostean. Eta, haur eta gaztetxoentzako bereziki, krosa ere izango da domeka goizean. Musikari dagokionez, punta-puntako musika-taldek beteko dituzte Soraluzeko kaleak doinuz: besteak beste, Janus Lester (24an, Plaza Zaharrean, 23:00etatik aurrera), Los Tenampas mariatxiek (25ean, toki berean) eta Idoia Asurmen-di eta Belako 26an, lehenengoa, 23:00etan hasita, Plaza Zaharrean, eta bigarrenak 00:30etik aurrera, baina Zubi Nagusian.

>>> Soraluzen lau egunetan batu dituzte jaiak, baina tarte horretan denetariko ekitaldiak izango dira



Santanak Mendaron

Bi asteburutan banatuko dituzte aurtengo jaiak: hasteko, uztailaren 19/20koan; eta, jarraitzeko, 24tik 27ra. 19an kuadrillen eguna izango da, txapel orijinalak, paelak eta playback-ak tartean. 20an Nagusien eguna ospatuko dute, meza, bazkaria (Aizpe elkartean) eta dantzaldiarekin. 23an Gazte asanbladak antolatutako frontenis txapelketako finalak jokatu dira. 24an Gazteen eguna izango da, txupinazoa jaurtiz arratsaldeko 18:00etan. 25eko Santixo egunera helduta, eguerdian Kuttune taldeak kontzertu berezia eskainiko du, arratsaldean herriko dantzariak izango dira frontoian, eta gauean danborradaren ordua izango da, aurtengain gainera baserriarrek osatutako hirugarren konpainia batekin. 26ko Santana egunean aspaldiko partez Santana ermitan elkartzeko asmoa dute, eta arratsaldean herri kirolak izango dira, Hodei Ezpeleta aizkolaria tarteko. Eta 27an Umeen eguna izango da, puzgarri, bazkari, danborrada eta barrekin. Hortik aparte, gauean beti izango da erromeria, kontzertu, DJ edo Mariatxiak.

Flysch Beltzaren azken edizioa ere arrakastatsua izan zen

Eibar Igerixanek urtero antolatzen duen Flysch Beltza igeriketa zehazkaldiaren XI. edizioak 200 igerilaritik gora parte-hartzaile izan zituen Mutriku eta Deba arteko ibilbide ikusgarriaren 3.000 metroak kubritzeko. Debabarrena osoko igerilariekin batera, beste eskualde batzuetatik etorritakoek eta baita Madril-dik edo Frantzia hegaldetik ere etorritakoek jardun zuten lanean. Eguraldi onak eta itsasoaren baldintza egokiak markatutako jardunaldiak gozatzeko aukera ere eskaini zien igerilariei hiru kilometro eta erdiko espazio berezian.

Eibar Igerixan talde antolatzailearen ordezkariak lan bikaina egin zuten zeharkaldi osoan, emaitzetan nabaritu zena. Horrela, gizonezkoen proban Asier Gomez hirugarren izan zen, Haigor Aranguren irabazlearen eta Luis Goñiren atzetik. Eta emakumezkoetan Eibar Igerixaneko Naroa Osa nagusitu zen, Elaia Mujika



taldekidea hirugarren izanik; Izaro Goñi sailkatu zen bi horien artean.

Itsaslabarretatik eta hondartzetatik ikusle asko izan zen animatzen, jai-giroan, eta antolakuntza bikainak segurtasuna uneoro bermatu zuen, lehorreko zein uretako laguntza logistikoarekin. Urteen eta edizioen poderioz, igeriketa maite dutenentzako ezinbesteko hitzordua bihurtu da Flysch Beltza.

Paula Calvo: Eibar Igerixan estatu mailan kokatu duen kirolaria

Gero eta emaitza ikaragarriagoak lortzen jarraitzen du Elgoibarko igerilariak. Iazko Flysch Beltza probaren X. edizioa bereganatu zuen Paula Calvok azken denboraldian ere ondo nabarmendu da jokaturako probetan, hemendik kanpoko goi mailakoetan Eibar Igerixaneko ordezkari bakarra izanik, eta maila handiko igerilari-ekin (olinpikoak eta mundialistak tartean) lehiatuz aurrera eginez etengabe. Horrela, martxoan Sabadellen jokaturako junior mailako Espainiako txapelketetan zilarrezko domina bat eta brontzezko bi irabazi zituen. Aurretik, otsailean jokaturako Euskal Herriko junior eta absolutu mailetako txapelketan, zazpi domina irabazi zituen, eurretako bost urrezkoak. Eta lehenago, urtarrilean, Bartzelonan jokaturako Alejandro Lope-



Eibar Igerixaneko igerilaria Sabadellen jokaturako txapelketan.

zen izena daraman Sarian, Gipuzkoako Federazioa ordezkatu zuen eta, jokaturako lau probetatik, hirutan domina irabazi zuen.

Eta denboraldiaren hasierara gerturatuz, abenduan zilarrezkoa eskuratu zuen Euskal Herriko distantzia luzeko proban eta urrian 200 estiloko proba irabazi zuen Getxo Trofeoan, ahaztu barik orain dela urtebete justu, 2024ko uztaillean, zilarrezko hiru domina irabazi zituela Espainiakoetan, 400 libre erakoaz jabetu zela Tolosako San Juan Sarian eta, egun batzuk aurretik, urrezko bi bereganatu zituela Udako Gipuzkoakoan, Euskal Herriko infantil mailakoan jokaturako hiru probetan nagusitzeaz aparte.



Paula Calvok iaz Flysch Beltzaren X. edizioa irabazi zuen.



SD Eibarko taldeak Areitioko etxe berrian

Atxabalpe atzean laga eta Areition hasi dituzte euren lan-saioak SD Eibarko bi talde nagusienetako jokalariek. 85 urte dituen klubak bere ametsetako bat errealitate bihurtu du dagoeneko eta, atek zabaldu dituen kirol-hiriaren lehen urratsak dihardu bizitzen. Harrobiko taldeak izango dira hurrengoak instalazio horiek erabiltzen, eta zaletuei ere joango zaie paso ematen gutxinaka.

Belar naturaleko bi zelaiak martxan dauden honetan, hurrengo lanetan harrobiko taldeei eskainiko zaizkien belar artifizialeko beste hiru zelai egokitzen joango dira. Lan horiek direla eta, zaletuek ezingo dute bertan izan hemendik egun batzuetara arte; hala ere, ez dute baztertu lagunarteko bat Areition jokatzea.

Aurrendenboraldiko lagunartekoak
Entrenamendu-saioekin lehenago hasi zen bezala, aurrendenboraldiko

lagunarteko partiduei ere gizonetako taldeak ekingo die aurretik. Horrela, zapatu honetan bertan debutatuko du Beñat San Joseren taldeak, Santanderreko Racing-ekin indarrak neurtuz goizeko 11:00etatik aurrera. LaLiga Hypermotioneko taldeak beste lau neurketa ere baditu lotuta: hurrengo zapatuan, hilaren 26an, Pau FC-ren kontra, eta abuztuaren 1ean, Bilbao Athletic-en kontra, izango dira lehen biak, horiek oraindik zein ordutan jokatuko diren zehaztu barik badaude ere. Orain arte lotutako beste biek badute eguna eta ordua: abuztuaren 2an Burgosen aurkakoa 18:30ean hasiko da, eta Ipuruan abuztuaren 9an jokatuko den Alavesen kontrakoa 19:00etan izango da. Liga hasi aurretik oraindik izan daiteke tarterik beste bateren bat jokatzeko.

Emakumezkoen lehen taldea lanera astebete geroago itzuli zen bezala, horrela ekingo dio ere lagunarteko partiduen egitarauari,



Amaia Gorostiza presidentea Jon Magunazelaiarekin berbetan.



Moreno, Magunazelaia, Lopez, Garrido eta Olaetxea fitxaketak.

hurrengo asteko zapatutik aurrera. Iñaki Goikoetxeak zuzenduko duen F Ligako taldeak uztailaren 26an debutatuko du, DUX Logroño igoberriaren aurka, 19:00etan jokatuko den norgehiagokan. Ondoren, abuztuaren 3an Madrid CFF izango du aurkari, hori ere 19:00etan; hilaren 6an Real Oviedo izango da lehiakide, 19:30ean hasiko den neurketan; eta hilaren 9an Osasunarekin borrokatuko du Lakuntzan, eguerdiko 12:00etan hasita. Azkenik, Euskal Herria Koparen barruko bi jardunaldi izango ditu, lehenengo 16an Athletic Club-aren kontra jokatuz Amurrión, 16:00etan hasiko den partiduan; eta handik astebetera, 23an edo 24an, Real Sociedad eta Alavesen arteko norgehiagokatik, emaitzen arabera, tokatuko zaionaren aurka.

Abuztuan abiatuko dute Liga

Gizonezkoen 2. Mailako taldeak abuztuaren 16an (zapatua) jokatuko du Ligako lehen partidua: Malagan izango da, arratsaldeko 19:30ean hasiko den partiduan. Eta bigarren jardunaldian hartuko du etxeko lehen partidua, Ipuruan ordu



Moeve F Ligako taldeak aste honetan hasi ditu aurre-denboraldiko lan-saioak.

berean Granadaren aurka jokatuko den neurketa: hori bai, norgehiagoka hori barixakuan izango da, hilaren 22an. Hirugarren jardunaldia (eta abuztuko azkena) Huescan jokatuko du San Joserren taldeak; eta, behin irailean sartuta, Andorra jasoko du etxean laugarrenean, Cadizera bidaiatuko du bosgarrenean, eta seigarrenean denboraldiko lehen derbiari egingo dio aurre, Realeko bigarren taldea Ipuruan hartuta.

1. Mailako emakumezkoen taldeak, bestalde, iaz baino lehenago hasiko du Moeve F Liga, abuztuko azken asteburuan, Ipuruan Sevilla

jasota. Irailean beste lau jardunaldi jokatuko ditu, eurretako hiru etxetik kanpo: lehenengo asteburuan estatuko hiriburura joango da, Madrid CFF taldeari aurre egiteko; jarraian Ipurua bueltako da, ordukoan Levante Badalona hartzeko; eta azken bietan Granadara eta Valentziara joko du Goikoetxearen taldeak, Granada eta Levante taldeei aurre egiteko. Armaginek beste bi errefortzu gehitu die taldeari azken egunotan, biak ere Athletic-etik datozenak: Amaia Iribarren nafarra erdirako eta Garazi Facila ezker hegaleko atzelaria.

Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORAK ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafía
lanerako erropa

www.publireza.com
publireza@publireza.com
943 701 437 / 615 799 419
Armagin, 3-5 beheak

ABUZTUAN GOIZEZ ZABALIK
08:30-13:30
MUGIKA
Harategia - Urdategia
Carnicería - Charcutería

Baserriko Haragia

Urkizu, 18 943120194

“Orientazio probetan oreka bilatu behar da desnibelaren eta distantzien artean”

OSKAR GISASOLA ETA JON GALARRAGA • Gipuzkoako Orientazio Taldea



Quintanar de la Sierra (Burgos) herrian egin da aurtengo Munduko Orientazio Txapelketa (World Rogaining Championship, WRC) eta Oskar Gisasola eibartarra podiumera igo da super beteranoen mailan (55 urtetik gorakoak) Jon Galarraga bikotearekin batera. Gipuzkoako Orientazio Taldeko (GOT) kideek 58. postuan amaitu zuten sailkapen orokorrean eta ederki gozatu zuten ia 24 ordu iraun zuen proban.

A din guztietako jendea batzen duen kirola da orientazioa edo rogaininga. Askok familian lehiatzen dira, seme-alabek bultzatuta hasten dira beste batzuk, eta mendizale-tasuna maite dutenek beste pizgarri bat aurkitzen dute proba horietan. Hori dio GOT-eko bikote honek: “Mendian ibiltzea da, baina pentsatuta”.

Nola animatu zarete WRC-an parte-hartzera??

OSKAR: WRC-ak urrun egin izan ohi dira, baina 2019an La Molinan (Katalunia) egin zen eta parte-hartzera animatu ginen. Hurrengo biak Txekiar Errepublikan eta Kalifornian (AEB) egin dira, oso urrun guretzat, baina aurtengoa Burgosen egin denez, berriz animatu gara.

Bertan parte-hartzeko aurretik sailkatu behar da ala nahikoa da izena ematearekin?

OSKAR: Orientazio klub bateko kidea izan eta esperientzia edukitzearekin nahikoa da, ez dago sailkapen probarik.

JON: Jende gehiegi balego, agian bai, baina ez da falta izan. 800-900 partaide egon gara.

900 partaide ingururekin, podiumera igotzea lortu duzue. Pozik emaitzarekin?

OSKAR: Parte-hartzea zen gure lehen helburua, baina bagenuen itxaropen txiki bat paper ona egiteko eta dena ondo atera zitzaigun. Estrategiarekin asmatu genuen eta ez genuen denborarik galdu balizak topatzen. Nahiko pozik amaitu genuen.

JON: Gorputzak ere ondo erantzun zigun. Ahulaldia izan dezakezu, zaintiraturen bat eta agur, baina oso ondo joan zitzaigun. Egunak argitu zuenean ondo genbiltzala ikusi genuen, baita indarra genuela ere, eta aurrera egin genuen ondo amaitu genezakeela uste baikenuen.

Zer egin behar zenuten proba horretan?

OSKAR: Iraupen ezberdineko rogainingak egoten dira: 6 ordukoak, 8koak, 12koak... eta Munduko Txapelketa 24 ordukoa izaten da. Probaren egunera arte, bakarrik proba non egingo den genekien, besterik ez, eta proba hasi baino hiru ordu lehenago eman ziguten mapa. Bertan sestra-kurbak, altuerak, lur-motak, errekek eta elementu ezberdinak (etxeak, harriak, dorreak...) daude markatuta, eta hiru ordu izaten ditugu pentsatzeko probak irauten duen 24 orduetan zein balizatik pasatu nahi dugun. Denbora horretatik kanpo helduz gero, penalizazioa jasotzen duzu. Beraz, zure fisikoaren eta mapan ikusten du-



Gisasolak eta Galarragak osatzen duten bikotea bikain moldatzen da orientazio probetan.

zunaren arabera, 24 ordutan zein ibilbide egin nahi duzun erabaki behar duzu.

Baliza bakoitzak puntuak ematen ditu?

JON: Hori da, baliza bakoitzak puntu kopuru bat ematen du, normalean zailtasunaren arabera. Tontorretan daudenek 10-12 puntu ematen dituzte, errazagoek 3, 4 edo 5... Estrategia erabakitzerakoan gauza asko eduki behar dira kontuan. Adibidez, gora eta behera ez ibiltzea desnibela pilatuz. Estrategiak demaseko garrantzia du.

OSKAR: Oreka bilatu behar da desnibelaren eta distantzien artean. Gero, lur-mota ere kontuan eduki behar da. Hori koloreen bitartez ikusi daiteke. Horren bitartez ikusten da zein erraztasun dagoen toki jakin batetik pasatzeko. Bestalde, zonalde arriskutsuak kolore bereziekin egoten dira markatuta, ezbeharrik gertatu ez dadin.

Bikoteko kide bakoitzak rol bat dauka?

OSKAR: Normalean bion artean egiten dugu dena. Estrategiarekin ibilbide nagusia erabakitzen dugu, baina egia da gero aldaketak egon daitezkeela (baliza batean atzeratu garelako edo dena delakoa), baina hori bidea egin ahala erabakitzen dugu. Batzuetan, nekearenga-

“Munduko txapelketan estrategiarekin asmatu genuen eta ez genuen denborarik galdu balizak topatzen; nahiko pozik amaitu genuen”

tik, kontzentrazioa galdu dezake gutako norbaitek, eta kasu horietan besteak gidatzen du.

JON: Batzuetan, nekearengatik eta horrela, bikote batzuk tentsio handiarekin ikusi izan ditugu.

OSKAR: Talde batzuetan demaseko liskarrak sortzen dira.

Mapa hiru ordu lehenago jasotzen baduzue, nola entrenatu daiteke horrelako proba bat?

JON: Daukadan adinarengatik, urtean zehar sasoian egoten saiatzen naiz gustoko kirola egiten: korrika, mendi-martxak... Azken hiru hilabeteetan zenbait mendi-martxatan ibili naiz.

OSKAR: Astean zehar gutxienez lau egunetan saiatzen

BIDEOA



naiz zer bait egiten, ibili behintzat. 24 orduko proba bat egiteko, gehien bat ibili egin behar zara orduak eta orduak pilotzeko. Bestalde, arlo teknikoari begira, Espainia guztia orientaziorako mapeatuta dago programa batzuen bitartez eta, xehetasun txikiak agertzen ez diren arren, gutxi gorabeherako mapa bat eginda dago eta, Munduko Txapelketa Quintanarren egingo zela bagenekienez, zonalde hori aztertu genuen. Hor ikusi genuen gauez ibiltzeko zein toki izan zitekeen egokiena, non zegoen desnibel handiena, eta abar.

JON: Ez genekien balizak non egongo ziren, baina gutxienez eremua ikasi genuen.

Probaren egunean nolako tresnak erabili ditzakezue?

JON: Mapa mahai-oihal batean eman ziguten, 50x70 zentimetroko mapa, eta horrekin eta ipar-orratz batekin moldatu behar ginen. GPS-ak debekatuta daude, baita GPS-a duten erlojuak ere, eta telefono mugikorrek poltsa batean prezintatuta eramaten ditugu. Larrialdi egoeran bakarrik erabili daitezke.

OSKAR: Eta gero ura, mordo bat! Anoa postuak daude, baina erabakitzen duzun estrategiaren arabera agian ez zara anoa postu batetik 4 edo 5 ordutan pasatzen.

Munduko Txapelketa izanik, munduko onenak egongo ziren bertan. Beste bikoteekin harremana izan duzue?

OSKAR: Irabazi dutenekin ez dugu harreman zuzenik eduki. Errusiarrak ziren eta gero, bakoitzak egindako bidea aztertu genuenean, baliza bat eurekin pikatu genuela ikusi genuen, baina momentu horretan ez genuen jakin zeintzuk ziren. Bestalde, Letonia edo ez dakit zein herrialdetako bi neskarekin hiru edo lau balizatan kointziditu genuen, eta eurekin bai egin genuen berba. Momentu batean banatu eta handik ordu batzuetara berriz elkartu ginen. Jarrita zeuden, ilunetan, argiarekin, eta ikusi gintuztenean esan ziguten: "Zuen zain gaude atzetik joateko!" (barreak).

Estrategiak kopiatu daitezke? Edo bata bestaren atzetik ibili?

OSKAR: Zaila da.

JON: Agian gauez haiei beldurra ematen zien edo zaila egiten zitzaizen balizak bilatzea, eta gu zuzen gindoa zela ikusita, jarraitzea erabaki zuten, baina denbora



guztian ez duzu aguantatzen beste bikote baten atzetik. OSKAR: Baliza batzuetan kointziditu dezakezu, baina bakoitzak bere estrategiari jarraitzea izaten da normalena.

Euskal Herriko parte-hartzaile gehiago egon ziren?

OSKAR: Katgoria ezberdinak daude, adin eta sexuaren arabera banatuta. Katgoria mistoan GOT-eko bikote bat egon zen, nesketan beste bat, mutiletan beste bat, beteranoetan beste batzuk... Bost talde guztira.

Orientazioak nolako komunitatea du gurean?

JON: Pixkanaka handitzen joan den komunitatea dago. Orain dela urte batzuk oso ezezaguna zen.

OSKAR: EAE-n hiru klub daude: Gipuzkoan GOT, Bizkaian Cobidea eta Araban Coaraba. Araban agian gutxiago dira, baina Bizkaian eta Gipuzkoan dezente gara. Gure klubean 170 lagun inguru gaude. Ume asko dago taldean, Zarautz eta Donostia inguruan, batez ere. Bestalde, Cobidean 30 urte inguru daramatzate eta askoz ere kide gehiago dituzte.

Hemen inguruan probak egiten dituzue?

OSKAR: Klub bakoitzak bere liga du, 6-7 probarekin, eta proba horietan ibiltzen gara orokorrean. Bestalde, Liga Norte delakoa dago, Madrildik iparralderako probak hartzen dituen.



Iñaki Isasmendi Irigoien
4. URTEURRENA (2021/07/27)
 "Beti izango zara gure bihotzetan"
 - ZURE FAMILIA -

M^a Nieves Retolaza Gonzalez

2025/07/13

Lore berri bat
 eskuetan, zerura
 begira jarraitzeko.
 Ez adiorik,
 asko maite zaitugu.

ETXEKOOK
 EZ ZAITUGU AHAZTUKO




Maria Nieves Retolaza Gonzalez

2025/07/13

Baserriko
 bazkarietan
 faltan botako
 zaitugu

- ZURE LAGUNAK -





Maria Nieves Retolaza Gonzalez

2025/07/13

"Zure irribarre
 eta samurtasuna
 betirako izango dira
 GURE ARTEAN"

ASIERREN GELAKO
 LAGUN ETA GURASOAK

**ESKERTZAK ETA
 URTEURRENAK**

Urkizu, 11 - solairuartera
 publikitate@etakitto.eus

688 62 76 89

FUNEUSKADI
 Funerariak

FUNERARIA MUGICA
 Funerariak

TANATORIO ELBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar: Otaola, 27

Elgoibar: Xikilari, s/n, SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdepeña, 16

Elbar · Elgoibar · Ermua · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Aisialdiko Begirale ikastaroa Debabarrenean bertan eta euskaraz egiteko aukera dago

Aurten ere, Debabarreneko udalek antolatu dute datorren ikasturterako begirale ikastaroa. Kurtsoa amaitzen dutenek Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulu ofiziala eskuratuko dute.

Iazko bideari jarraituz, Debabarreneko Udalek (Eibar, Soraluze, Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaro) Aisialdiko Begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute 2025-26 ikasturterako, Gaztetxo Eskolarekin elkarlanean. Ikastaroa euskaraz izango da, eta urritik ekainera bitartean gauzatuko da. Ikasleek 18 urte izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzen denerako, hau da, 2026ko ekainaren 30erako.

Ikastaroa amaitzen duten gazteek Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulu ofiziala eskuratuko dute. Bestalde, atal teorikoa (150 ordu) era praktikoa gauzatuko da. Ikastaroan, gainera, asteburu osoko hiru irteera egingo dira. Ikastaroari lotutako praktikak ere egingo dituzte ikasleek: 160 aisialdi-ordu bete beharko dituzte, boluntario gisa. Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek irailaren 19ra arteko epea daukate izena emateko. Horretarako, edo ikastaroari buruzko informazio gehiago izateko, Eibarren Akebairen webgunera sartuta (www.akebai.eus), bertan aurkituko dituzue beharrezko argibide guztiak.

Debabarreneko 27 gazte aritu dira 2024-25 ikasturteko begirale ikastaroan

Akebaitik azaldu digutenez, "Debabarreneko 27 gazte aritu dira 2024-25 ikasturteko begirale ikastaroan. Bi taldek hartu dute parte Gaztetxoak Eskolako teknarietara eman duten kurtsoan, eta orain praktikak egiten ari dira han eta hemen. Eibarko bederatzi ikasle, Mutrikuko sei, Mendaroko bost, Debako hiru, Soraluzeko bi eta Elgoibarko beste bi izan dira guztira, eta guztiak amaitu dute ikastaroa. Praktikaldia amaitzen dutenean jasoko dute titulu ofiziala".



IKASTAROAREN XEHETASUNAK

- Atal teorikoa urrian hasi eta maiatzean amaituko da (150 ordu) eta era praktikoa gauzatuko da. Jarraian bi tutoretza saio izango dira.
- Praktikak: boluntario gisa bete beharreko 160 aisialdi-ordu izango dira.
- Zapatuetako saioak Debabarreneko bi herritan izango dira (izen-ematearen arabera), 09:30etik 18:30era (ordubete eta laurdeneko etenaldiarekin, bazkaltzeko). Gainera, asteburu osoko hiru irteera egingo dira.
- Prezioa: 300 euro, baina Debabarrenean erroldatuta daudenek matrikularen erdia (150 euro) ordainduko dute soilik.
- Izen-ematea: <https://labur.eus/debabarrenabegirale>. Azken eguna irailaren 19a da.
- Informazio gehiago: eibarrenakebai@gmail.com / 943 708426 / 688 854 965 (WhatsApp bidez idazteko).



Lau pelikuletatik bi euskaraz proiektatuko dituzte: "Harry Potter eta sorgin harria" (abuztuaren 7an) eta "Chihioren bidaia" (abuztuaren 21ean).



Aspaldikoak, baina izen handiko pelikulak emango dituzte Udako Zinean

Udalak antolatuta Untzaga plazan egiten den Udalako Zinearen eskutik lau film proiektatuko dituzte abuztuan. Oraingo honetan, pelikulak aukeratzeko orduan urte batzuk atzera joan dira antolatzaileak, eta aurreko mendearen hasierako lau pelikula eskainiko dituzte, guztiak ere bere sasoian jarraipen handia izan zutenak. Ohiko bidetik, filmak abuztuko eguenetan proiektatuko dituzte, laurak ere gaueko 22:00etan hasita. Lehena (abuztuaren 7koa), Chris Columbusek zuzendutako *Harry Potter eta sorgin harria* (2001) izango da; bigarrena (abuztuaren 14koa), Steven Spielberg-en *Indiana Jones en busca del arca perdida* (1981); hirugarrena, hilaren 21ekoa, Hayao Miyazakik zuzendutako *Chihioren bidaia* (2001), 7 urtetik gorakoentzat gomendatuta dagoen animaziozko film japoniarra izango da; eta laugarren eta azkenean (abuztuaren 28koan) Steven Spielberg izango dugu berriro, *Jurassic Park* pelikularekin (1993). Filmetako izenburuei jarraituz, bi euskaraz proiektatuko dira, eta beste biak gazteleraz.

Udaletik adierazi dutenez, "ekimen honekin, kultura eta zinema sustatzeaz gain, aukera bat eskaintzen zaie herritarrei aire libreko ingurune batean eta udako gau beroetan elkarrekin bildu eta disfrutatzeko. Espero dugu proposamenak aurreko edizioetan izan duen harrera ona izatea aurtengo ere".



Arrateko bertso-afarirako sarrerak salgai ipini ditugu

Aurtengo Arrateko Bertso Afarirako sarrerak salgai daude astelehenaz geroztik eta, beste batzuetan bezala, oraingoan ere ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideek sarrerak erosteko lehentasuna izango dute: bazkide ez direnek baino bi euro gutxiago (38 euro) ordainduko dute, uztailearen 23ra bitartean erosiz gero (...eta kitto! Euskara Elkartearen ipini dituzte salgai). Uztailearen 24tik aurrera, berriz, ohiko lekuetan erosi ahal izango dira: Kultu, Guridi eta Tiro Pitxonen, 40 eurotan. Aurtengoa 32. edizioa izango da, eta betiko lez puntako bertsolariek jardungo dute Tiro Pitxonen, irailaren 7an, domeka: Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Maider Arregi eta Andoni Egaña. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Jon Mikel Mujika arituko da.

"Antzerki laborategia" tailerra

Antzerkigintzan trebatzeko tailerrak antolatu ditu Udalak aurtengo ere. Errebal plazan izango dira, eta elebitan emango dituzte klaseak Marmar Antzerki Taldekoek. Adinaren arabera, taldeak osatuko dituzte: LH 3., 4., 5. eta 6. mailakoentzat eta DBH 1. eta 2. mailakoentzat eguaztenetan izango dira (17:00etatik 18:15era edo 18:15etik 19:30era); eta DBH 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailakoentzat, eta helduentzat, martitzenetan (18:00etatik 19:30era edo 19:30etik 21:00etara). Aurrematrikula egiteko epea abuztuaren 29tik irailaren 22ra bitartean egongo da zabalik, eta izena emateko formularioa bete beharko da, elektronikoki, ondorengo estekan: <https://formularioak.eibar.eus/eu/antzerkilaborategia2025-02>.



**AURKITU 5 EZBERDINTASUNAK****LABIRINTOA****ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

5					6	8		9
					5	2	1	
2	7							5
4			1		9			
		2				1		
			3		7			8
6							8	4
	5	7	6					
1		4	9					2

2	9	8	6	9	6	1
1	8	2	9	6	2	6
8	9	6	1	2	6	2
8	2	9	2	8	5	1
6	4	1	8	6	2	1
1	8	6	2	1	8	9
8	2	9	6	1	2	6

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

5	2	9	6	9	6	1
1	8	2	9	6	2	6
8	9	6	1	2	6	2
8	2	9	2	8	5	1
6	4	1	8	6	2	1
1	8	6	2	1	8	9
8	2	9	6	1	2	6

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

					8		7	
				1	5	8		3
			2			5	4	
9	4		1					
8	1			7			9	2
					3		1	8
	6	4			1			
7		2	6	5				
	9		3					

**Zenbat tximino hel daitezke?**



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK




Labirintoak




ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		9				2
				2		5
8			5		1	9
		4	2	3	7	
			8	4		
		6	5	1	8	
7	2		4			9
9			8			
4				6		



soluzioa

S
U
D
O
K
U

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4		3		9	2
8			2			
5	3		9	1		
4	7					9
	1	5			4	3
6					7	1
			4	5	9	7
				9		8
9	7		1		4	

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 19an: 17:00, 19:45, 22:30
- 20an: 17:00, 20:00
- 21ean: 19:30

“Una cena... y lo que surja”
KOMEDIA



2024 / Frantzia / 77'
Zuzendaria: Olivier Ducray
Aktoreak: Isabelle Carré,
Bernard Campan, Julia Faure
Auzokoen artekoa / Remake

2 ARETOA

- 19an: 17:00, 19:45, 22:30
- 20an: 17:00, 20:00
- 21ean: 19:30

“Superman”
AKZIOA



2025 / AEB / 129'
Zuzendaria: James Gunn
Aktoreak: David Corenswet,
Rachel Brosnahan, Nicholas Hoult
Zientzia-fikzioa / Superheroiak

ANTZOKIA

- 19an: 17:00, 19:45, 22:30
- 20an: 17:00, 20:00
- 21ean: 19:30

“Elio”
ANIMAZIOA



2025 / AEB / 98'
Zuzendaria: Madeline
Sharafian, Domee Shi eta Adrian
Molina
Zientzia-fikzioa / Abenturak

Zine programazioko
ikasturteko azken
asteburua izango da

Irailean bueltatuko
da berriro Coliseora

UDAKO ZINEA UNTZAGA

ABUZTUAK 7 EGUENA

- 22:00

“Harry Potter eta
sorgin harria”
ABENTURAZKOA



2001 / Erresuma Batua / 152'
Zuzendaria: Chris Columbus
Aktoreak: Daniel Radcliffe,
Rupert Grint, Emma Watson
Magia / Fantastikoa

ABUZTUAK 14 EGUENA

- 22:00

“Indiana Jones en busca
del arca perdida”
ABENTURAZKOA



1981 / AEB / 115'
Zuzendaria: Steven Spielberg
Aktoreak: Harrison Ford,
Karen Allen, Paul Freeman
Arkeologia / Bidai berezia

ABUZTUAK 21 EGUENA

- 22:00

“Chihiren bidaia”
ANIMAZIOZKOA



2001 / Japonia / 124'
Zuzendaria: Hayao Miyazaki
Dragoiak / Isekai / Fantastikoa

ABUZTUAK 28 EGUENA

- 22:00

“Jurassic Park”
AKZIOZKOA



1993 / AEB / 121'
Zuzendaria: Steven Spielberg
Aktoreak: Sam Neill, Laura Dern,
Jeff Goldblum
Zientzia-fikzioa / Dinosaurioak

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **JULEN**, gure txapeldun! Gaur 6 urte egin dozuz. Eskerrik asko, maittia, urte hauengaittik. Maitte zaittugu.



Zorionak, **JON!!!** Atzo 7 urte bete zenduazten eta! Patxo bat etxekuen partez!



Zorionak, **KOLDO!!** Hillaren 24an 5 urte beteko dozuz eta. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **AIURI**, domekan 4 urte mando eitenzuz. Mosu haundi bet. Malen, Ama eta Aitaren partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **IBAI!!** Datorren 29xan 2 urte beteko dozuz eta. Amatxo, Eneko eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **VICTORIA**, zure 10. urtebetetzian. Zure gurasoen partetik. Maitte zaittugu!!



Zorionak, **KOLDO**, hillaren 27xan 10 urte beteko dozuz eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, lkerren partez.



Zorionak, **MAIA!** Hillaren 30ian 5 urte beteko dozuz eta. Amatxok, aitatxok eta Paulek asko maitte zaittugu!



Zorionak, **JARE**, martitzenian 10 urte bete zenduazten eta. Musua etxekuen eta, batez be, Learen partez.



Zorionak, **MIKEL!** Domekan 6 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat Julen eta famelia guztiaren partez. Ondo pasatu!



Zorionak, **LAIA**, hillaren 26xan 4 urte egingo dozuz eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Mararen partez.



Zorionak, **IZAR eta MAITE!** Domekan 7 urte beteko dozuez eta. Asko maitte zaittuegu. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IKER eta AITOR!** Domekan 5 urte beteko dozuez eta! Musu haundi bat famelixaren partez. Asko maitte zaittuegu!



Zorionak, **MIGUEL eta MARIAN**, ezkondu zinaziela atzo 50 urte bete ziran eta. Oso ondo pasa bixarko ospakizunetan. Etxekuen partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskakerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
• Baserria salgai Itziarko Endoia auzoan. 330 m². Oso ondo komunikatuta. Bista paregabeak. 632252602.
1.2. Errentan
• Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berrituta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.
• Deban etxebizitza alokagai. Urte osorako, familia edo pareja gazte formalaren bila. 3 logela, 2 bainu. Irrixora begira. 750 euro hilero. Epe luzera-ko. 688714605.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
• Honda cb600f (Hornet) moto-rra salgai. 600ekoa den arren 35 kwra mugatuta dago. 1999koa, 69.000km. Egoera ezinhobean eta ITV egunean. 2.000 euro. 688857786. Jon.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 672827386.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Erreferentziak. 613287661.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631418130.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Interna. 687408348.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 672965658.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. 633511066.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. 631425686.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 613667234.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 613949845.

4.2. Langile bila
• Euskaraz hitz egiten duen emakumea hartuko genuke 2025-26 ikasturterako, goizeetan alabak prestatu eta ikastolara eramateko. 667942392.
• Emakumea behar da nagusia zaintzeko Donostian. Interna. Astelehenetik zapatu eguerdira. Abuztuan hasteko. 640795297.
• Pertsona behar da irailetik aurrera goizetik bi haurrei prestatzen lagundu eta eskolara eramateko. Euskaraz jakitea baloratuko da. ihintzasa@yahoo.es

- Emakumea hartuko genuke nagusia zaintzeko. Interna. 688611124. Raquel.
 - Eibarko erdiguneko tabernan eskarmentudun zerbitzaria hartuko genuke. 943558728.
- | |
|---|
| 5. IRAKASKUNTZA |
| 5.2. Eskaintzak |
| • Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko lituzke. 615701749. |
| • LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia. |
| • Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe. |
| • DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto. |

6. DENETARIK
6.2. Eman
• Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugulako zaindu. Spaniel britainiar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051.



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clínica estética

Medikuntza	Kirurgia
• Dermatologia estetiko • Aurrepea estetizea • Belizeak	• Belazak, belariek... • Liposukzioak • Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmólogo Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Psikologoak

GONZALEZ DE MENDIBIL

**PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5. 1-C 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar Mondragon Lili
GONZALEZ ETA ARRAZALDEZ

Urkizu, 13 - behe
Tel: 943206823 / 686859023

Podologoak

DR. ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

**Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak**

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM




**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

**PODOLOGOA
Erdiko klinika**

Nerea Arregi (123 Kalegiatu zbkia.)
Rosarito Rodríguez (125 Kalegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (127 Kalegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



**RS Medikuntza
Estetikoa**

Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTORICA

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7



PODOLOGOA

**Maider
Lopez
Etxeberria**

**Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88**

65 Kalegiatu zbkia.



943-206776

Probatu al duzu hapiick-en sortu dugun aplikazio berria?
Zuretzako edo edonorentzako objektuak lagatzeko:

tedejo





DOHAINIK eibartar guztiontzakol

Hurrengo **QR kodea** eskaneatu
eta aplikazioa deskargatu

Erabili dezakezu:

- Calbeton Vending
- Avia Kantoi
- Forum Sport Eibar



ii hapiick



HAMAIKANPER LEHIAKETA MARTXAN DA!



EMAN IZENA ETA AURKEZTU ZURE FURGONETA

**EZ ZARA PROFESIONALA IZAN BEHAR!
SORMENA ETA GOGOA BESTERIK EZ!**

Eskaneatu QRa eta parte hartu!

www.hamaika.eus/saioak/hamaikanper



hamaika

